HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6364

AGINDUA, 2008ko urriaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko irakasleek egindako espezializazio-ikastaro biren ezaugarriak eta ikastaro horiek gainditu dituztenen zerrenda argitaratzen dituena (ikastaro horiek sail honek homologatu zituen, Euskal Autonomia Erkidegoan egin ziren, eta Viceko Unibertsitateak eman zituen «Instituto Superior de Estudios Psicológicos» institutuaren bitartez).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 1998ko ekainaren 12an emandako Aginduaren bidez (uztailaren 24ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako prestakuntza-ikastaroak homologatzeko prozedura ezarri zen; ikastaro horien artean zeuden Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko irakasleak espezializatzeko ikastaroak.

Mota horretako ikastaro bat homologatu egin denez, argitaratu egin behar dira ikastaro horren ezaugarriak, bai eta ikastaro hori egin eta gai kalifikazioarekin gainditu duten EAEko jarduneko irakasleen zerrenda ere, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Horregatik guztiagatik, ondokoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoan jardunean dauden irakasleentzako -Unibertsitateaz kanpokoak, Haur Hezkuntzakoak, Lehen Hezkuntzakoak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko-ak- Haur Hezkuntzako espezializazio/gaikuntza-ikastaroa homologatu egin dela argitaratzea. Ikastaro hori Hezkuntza sailburuordearen 2005eko maiatzaren 16ko Ebazpenaren bidez homologatu zen, eta «Instituto Superior de Estudios Psicológicos» institutuak eman zuen Vic-eko Unibertsitatearekin izenpetutako hitzarmen baten bidez. Era berean, ikastaroa gainditu eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren 1996ko urtarrilaren 11ko Aginduan (23ko BOE) zehaztutako baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileen zerrenda argitaratuko da. Agindu horretan homologatu egiten dira maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioentzako eta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe pribatuetako irakasleentzako espezializazio-ikastaroak (eranskina).

2. artikulua.– Honekin batera doan eranskinean ageri diren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko langileek dagokien alorrerako gaikuntza izango dute,

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6364

ORDEN de 24 de octubre de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se hacen públicas las características y relación de aptos de dos cursos de especialización para el profesorado de Educación Infantil, Primaria y primer ciclo de Educación Secundaria Obligatoria homologados por este Departamento, realizados en la Comunidad Autónoma del País Vasco e impartidos por la Universidad de Vic a través del Instituto Superior de Estudios Psicológicos.

Por Orden de 12 de junio de 1998 (BOPV de 24 de julio) del Consejero de Educación, Universidades e Investigación se estableció el procedimiento de homologación de cursos de formación del profesorado no universitario de la Comunidad Autónoma del País Vasco, entre ellos los que tienen como objetivo la especialización del profesorado de Educación Infantil, Educación Primaria y primer ciclo de Educación Secundaria Obligatoria.

Habiéndose homologado un curso de este tipo procede hacer públicas las características del mismo, así como la relación del profesorado en activo en la Comunidad Autónoma del País Vasco que ha participado y lo ha superado con la calificación de apto, para que surtan los efectos oportunos.

Por ello,

DISPONGO:

Artículo 1.– Hacer pública la homologación de un curso de Especialización/Habilitación en Educación Infantil para profesorado en activo en la Comunidad Autónoma del País Vasco, de niveles no universitarios y de Educación Infantil, Educación Primaria y primer ciclo de Educación Secundaria Obligatoria. Homologado mediante resolución del 16 de mayo de 2005 del Viceconsejero de Educación, impartidos por el Instituto Superior de Estudios Psicológicos mediante convenio con la Universidad de Vic y de participantes que lo han superado y cumplen los requisitos indicados en la Orden del Ministerio de Educación y Ciencia de 11 de enero de 1996 (BOE de 23), por la que se homologan cursos de especialización para el profesorado funcionario del Cuerpo de Maestros y de los centros privados de Educación Infantil, de Educación Primaria, de Educación Especial y del primer ciclo de Educación Secundaria Obligatoria, según anexo I.

Artículo 2.– De acuerdo con lo previsto en la convocatoria de este curso, en los acuerdos suscritos entre este Departamento y la Entidad Universitaria que lo impar-

honako lege-xedapenak kontuan hartuz: ikastaro hauen deialdia, sail honen eta ikastaroak emango dituen unibertsitate erakundearen artean izenpeturiko hitzarmenak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren gaikuntzak gaurkotzeko jardunbideari buruzko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1993ko urriaren 14ko Aginduaren 3 eta 10.1 artikuluak (azaroaren 23ko EHAA).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 24a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

I. ERANSKINA

HOMOLOGATUTAKO ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA

0668EIF586 IKASTAROA: ESPEZIALIZAZIO/ GAIKUNTZA-IKASTAROA: HAUR HEZKUNTZA

«Instituto Superior de Estudios Psicológicos (ISEP)» institutuak emana, Vic-eko Unibertsitatearen eta ikastaroa ematen duen erakundearen artean izenpetutako lankidetza-hitzarmena betez.

Hezkuntza sailburuordearen 2006ko ekainaren 12ko Ebazpenaren bidez homologatua.

Gainditu dutenen zerrenda:

NAN	Abizenak	Izena
30558397	Aranguren Galarza	María Yolanda
22709150	Ayala Ortega	Petra
72468455	Azcue Segurola	María José
15954854	Eguiguren Lasa	María Teresa
11920917	Errasti Barriocanal	Aintzane
30572840	Gutiérrez Arenas	María Luisa
16279552	Isla Isasi	María Belén
14945325	Merino Gallego	Ana Isabel
14960877	Rodríguez Negro	Nuria del Carmen
30616853	Valle García	María Jesús
15258687	Zabala Irastorza	Aloña

te y en los artículos 3 y 10.1 de la Orden de 14 de octubre de 1993 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación (BOPV de 23 de noviembre) relativa al procedimiento de actualización de habilitaciones de los maestros y maestras de la Comunidad Autónoma Vasca, el personal dependiente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación incluido en el anexo adjunto quedará habilitado de oficio en el área correspondiente.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de octubre de 2008.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

ANEXO I

CURSO DE ESPECIALIZACIÓN HOMOLOGADO

CURSO 0668EIF586: CURSO DE ESPECIALIZACIÓN/ HABILITACIÓN EN: EDUCACIÓN INFANTIL

Impartido por el Instituto Superior de Estudios Psicológicos (ISEP) en virtud del Convenio de Colaboración firmado entre la Universidad de Vic y la propia entidad impartidora.

Homologado mediante resolución de 12 de junio de 2006 del Viceconsejero de Educación.

Relación de aptos

DNI	Apellidos	Nombre
30558397	Aranguren Galarza	María Yolanda
22709150	Ayala Ortega	Petra
72468455	Azcue Segurola	María José
15954854	Eguiguren Lasa	María Teresa
11920917	Errasti Barriocanal	Aintzane
30572840	Gutiérrez Arenas	María Luisa
16279552	Isla Isasi	María Belén
14945325	Merino Gallego	Ana Isabel
14960877	Rodríguez Negro	Nuria del Carmen
30616853	Valle García	María Jesús
15258687	Zabala Irastorza	Aloña